



[DES-HERRIA: HAUSTURAK ETA ETENAK EUSKAL HERRIAN]



2016ko abendua

Sustatzailea:



Euskal Herriko ekonomia eta gizarte garapenerako behategia
Observatorio para el desarrollo socioeconómico de Euskal Herria
Observatoire pour le développement économique et social du Pays Basque



IKASKETA
SINDIKALETARAKO
FUNDAZIOA

0. AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA	2
1.	SARRERA.....	3
2.	DES-HERRIAREN ONDORIOAK.....	5
3.	DES-HERRIA: HAMAIKA ERRONKA	9
3.1.	ZAILTASUN MAKROEKONOMIKOAK.....	10
3.2.	KAPITALAREN IHESA.....	12
3.3.	NAZIOARTEKOTZEA, ESPORTAZIOEI EUSTEKO ESTRATEGIA	14
3.4.	BERRIKUNTZA POSIZIONAMENDUA APALTZEN EUROPAKO TESTUINGURUAN	16
3.5.	ENPLEGUAREN PREKARIZAZIOA.....	18
3.6.	PREKARIETATEAREN FEMINIZAZIOA	20
3.7.	ARGI-ILUNAK GARAPEN SOZIALEAN, EUROPAKO ERREFERENTEETATIK URRUN	22
3.8.	BI PENSIO SISTEMA: BI ERREALITATE	24
3.9.	POBREZIA: GORABIDEAN ETA LURRALDE DESOREKAK AGERIAN	26
3.10.	EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, ZAILTASUN HANDIKO LELOA ZENBAIT LANDA EREMUETAN	28
3.11.	MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO GAITASUNA, HERRENKA	30

1. SARRERA

Euskal Herria herri gisa bidea egin ezin izan duen herria da. Bere buruari lehentasunak eta xedeak ezarri ezinik bateko eta besteko asmo zein egitasmoek (interes arrotzek zein interes partikularrek) egituratu duten des-herria.

Lurraldeak eta euskal identitateak osatu duten harreman espazio horretatik harago, herri oro bere garaian kokatu eta bere baitako atxikimendua oinarritzen duten ohiko prozesu gehienak burutu ezinik geratu gara. Ukazio horretatik, Euskal Herri mailan eremu sozioekonomiko komun bat osatzeko beharra ikusten dugunok, ukaezina denari lotu gatzaizkio, aipatu nazio izaerako lurraldeari eta identitateari. Eta horren arabera egituratu dugu herri eremu bat, orotariko ekimenen bitartez.

II Mundu gerratik XX. Mendea amaitu bitarteko aldiari oinarritzeko eskubideen eta herrien eskubideen gauzatze aldia izan zen. Euskal Herriak burujabetzarik eta lankidetzara esparru komunikatu gabe joan zaizkigu. Eta bitartean munduan pertsonako BPG altuenetakoa duen komunitatea bihurtu gara. Demagun urrezko zalgurdietan goazela, ibilgailua gidatu edo konpontzeko eskumenik gabe.

Orain, XXI. mendean, globalizazioaren aurpegi gogorrena nozitzen ari garenean, eta badakigunean herri estrategia orok iraunkortasunean duela oinarri, badakigu herri arkitekturarik egituratu ez izanak baliabide gutxi eta kamutsekin erantzun beharrean jartzen gaituela.

Esan daiteke geuri egiten utzi ez digutena bestek egin dutela, eta hortik asimilazioa baina mingarriago zaiguna: des-herria. Edo herri izatetik ez izatera garamatzen prozesua. Alegia, herri gisa pentsatu eta jokatzera ez garamatzana.

Honela Euskal Herria *collage* moduko bat bihurtzen ari dela esan daiteke. Bere txikitasunean, errealitate anitz metatzen dira, bakoitza bere lidergo kulturalarekin eta norabidea adostea

zailtzen duen sistema administratibo desberdinetan zatituta. Gure baitako konbergentzia bideratu ezinean, gure herri izateari modu dibergentean erantzuten dioten hamaika ekimen bizi ditugu.

Esparru gehienetan, behintzat bi aurpegi ditu, Frantziako Errepublikaren eta Espainiako Erreinuaren arteko muga administratiboaren alde banatan. Bi pentsio sistema, bi pobrezia atalase (ARPE). *Mileurista* bat pobrezia arriskupean da Ipar Euskal Herrian, egun “pribilegiatua” da Hego Euskal Herrian., Ipar eta Hego elkarri bizkarra emanda doaz, sinergiak galtzen utziaz, lankidetzaren indarra baliatu ezinik eta elkarren arteko elkartasun edo solidaritatea bideratu gabe.

Energia esparruan, esaterako, liberalizazioak estatuen muga administratiboak errespetatu behar ditu eta horrek ezinezkoa egiten du Hendaian sorturiko energia berriztagarria Hondarribian saltzea, aldiz, Normandian salgarria da. Eta alderantziz, berdin. Honela, ez dugu begien aurrean hartzen energia trantsiziorako ditugun aukerak eta are gutxiago trantsizio energetikorako estrategia normalizatu bat, dagokion babes mailarekin (babes soziala, politikoa, juridikoa, ekonomikoa, administratiboa...).

Gaitz bipolarra duen herria da Euskal Herria, erantzun berrien bila sinergiak eta konbergentzia prozesuak artikulatu ezinean dabilen herria. Des-herria.

Edonola ere, ondoren datorren lanak, aipatu prozesuaren hainbat argibide badakar ere, bada oraindik hainbat osagai gehitzeko. Lan honek, ordea, balio izan lezake ulertzeko proiektu sozioekonomiko orok arlo egituratzailetan oinarri hartu behar duela ulertzeko . Irizpide horrekin, lan honek hainbat gako eskaintzen du. Beste hainbat kanpoan utzi behar izan ditugu *Des-herriak* 2 lanari ekiteko gogoz dakarkizugu lehen hurbilpen hau.

2. DES-HERRIAREN ONDORIOAK

> *Euskal Herria, izaera bipolarra duen herria*

Azken urteotako zailtasun ekonomikoen aurrean **Europaren baitan bi joera** sortu dira. Alde batetik, krisi hasierako zailtasunak gainditu eta hazkunde zein inbertsio ekonomikoari ekin diotenak, Alemania buru. Bestetik, zorra medio inbertsiorako gastua bere horretan utzi edo murriztu dutenak, borondatez edo halabeharrez, eta hazkunde ekonomikorako zailtasunak dauzkatena, herritarren bizi kalitatea higatuz. Bigarren talde hau Espainia edo Grezia ongi ordezkutzen dute. Europan bi abiadura daudela aipatzen dute zenbaitzuk, Europak bi aurpegi dituela bestetzuk.

Europaren baitan dauden **bi errealitateak barnebiltzen ditu Euskal Herriak**. Europa erdialdeko eta iparraldeko erregioen izaera industrialak dauka, maila teknologiko handiko esportazioetarako nortasun indartsua, BPG *per capita* garrantzitsua (10. orria) edo kontinenteko giza kapital formatuenetarikoa (17.or), baina azken urteotan berrikuntzan emandako inbertsioaren gutxitzeak (11.or) edo enplegua sortzeko zailtasunak, eta sortutakoaren prekarizazioak (18.or), esparru desberdinetan Europako testuinguruan zuen posizio pribilegiatua galtzeko bidean jarri dute: berrikuntzarako posizioa ahuldu egin da (16.or) eta BPG *per capitako* erregioen rankingean 83. postutik 120ra igaro da. Horregatik, Euskal Herria izaera propio gabeko *collage* bat dela esan daiteke.

> *Euskal Herria, Alemania baino esportatzaileagoa eta barne mugak gainditu ezinik*

Euskal Herriak esportazioekiko duen menpekotasun ekonomikoa Alemaniarena baino handiagoa da, BPGaren %52,9aren bueltakoa (15.or). Oraindik ez du 2008 urteko esportazio bolumena berreskuratu, baina aurreikustekoa da laster egitea. Euskal esportazioen bezero nagusia Espainiar estatua da eta honen eskaria gutxitu da krisi aroan. Egoera honen aurrean,

euskal enpresek bezero-zorroa aniztu eta bestelako harreman historikoak (Alemania edo Erresuma Batua) indartu dituzte ere.

Hortaz, mugaz gaindiko harreman ekonomikoen garrantzia handia da euskal ekonomian, baina **Bidasoa ibaiak euskal administrazioen arteko barne-lankidetzarako oztopo handiak eragiten ditu** gero (30.or). Hego eta Ipar EH arteko hartu-emana desnaturalizatuta dago termino makroekonomikoetan nahiz kooperatiboetan Ipar EHren ikuspegitik, Hegoaldea lankidetzarako esparru naturala eta beharrezkoa da baina Hegoaldetik ez dago halako interesik eraikitako harresi administratibo-kulturalaren eraginez. **Europar Batasuneko hainbat eremu mugakideetan bezala arkitektura funtzional batek euskal ekonomiaren barne kohesioa erraztuko luke.**

> *Giza kapitalaren desaprobetxamendua, pobreziaaren ardatzetako bat*

Europatik Espainiar estatuari, eta era berean, Madriletik Hego Euskal Herriari zehazturiko austeritate irizpideek egoerari aurre egiteko Euskal Herriak dituen berezko baliabideak nabarmen ahuldu ditu, eta *Nazioarteko Diru Funtsa (NDF-FMI)* berak, austeritate politiken arriskuez eta hauen eraginkortasun ezaz mintzatu da aurtan¹. Ondorioz, lan erreforma desberdinen karira Euskal Herriko **biztanleria aktiboaren laurden bat (%25,3) langabezia edo prekarietate egoeran** ari da lanean (18.or), zer esanik ez emakumezkoen artean (20.or). Ipar Euskal Herriko lan merkatuak berezko arazoak ditu, aspaldikoak eta gutxietsi behar ez direnak, baina azken urteotako bilakaera laugarria Hego Euskal Herrian eman da.

2008 urteaz geroztiko egoera ekonomiko orokorrak enplegua sortzeko zailtasunak ekarri ditu, eta azken bi-hiru urteotako enplegu **sorrera aldibaterakotasun eta partzialtasun izaera handia** dauka. Badira urte batzuk Europa 2020 estrategiak lan intentsitate txikiak sortzen duen pobrezia arriskua neurtzen duenetik. Izan ere, egoera honek pobrezia gorabidean jarri du, eta EUROSTATen arabera, egun **521.400 euskal herritar pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskupean** dira (27.or). Horien artean, **128.200k gabezi material handiak** dauzka.

¹ International Monetary Fund. Finance & Development, June 2016, Vol. 53, No. 2


> Lurraldearen barne desorekak agerian

Pobrezia fenomeno urbanoa izan ohi da, eta gurean ere, datuek hala dela diote. Joera nagusi horrek, ordea, sarritan **Tuteraldeako pobrezia arrisku handia (26.or)** bere larritasunean aintzat ez hartzera garamatza. Edo **Erronkari-Zaraitzun, Arabako Mendialdean, Zangozerrian eta Ebro Garaiko Erriberan lan eta bizitzeko dauden zailtasun estrukturalak (28.or)**, bertako autonomoen baldintza zailak barne, ahaztera. Aukera berdintasuna ez baita bertsua Iruñerrian edo Erronkari-Zaraitzun, Zuberoan edo Aturri Hirigunean, baina hamaika errealitate horiek Euskal Herria bere osotasunean gorpuzten dute.

> 1960 eta 1970. hamarkadako hazkundearen ajeari aurre egiteko erronka


Espaniar estatuan, eta ondorioz Hego Euskal Herrian, pentsio sistemaren bideragarritasunaren gaineko eztabaida piztu berri da. **Euskal Herriak, orotara, 464.000 erretiratu** inguru ditu (24.or). 1960 eta 1970. hamarkadako eztanda industrial eta demografikoaren ondorioak oso nabariak dira egun, esaterako, Bizkaian. Hegoaldeko egungo zerga-bilketa ez du ematen nahikoa denik etorkizuneko pentsionista bolumenari eusteko, eta Europan bertan, pentsio sistemaren finantziatorako eredu desberdinak daude. Edonola ere, soldata eskaseko enpleguen sorrera eta egungo azpi-enplegu handiak (Espainian baino handiagoa) sortzen duen **giza kapitalaren desaprobetxamendua** etorkizunerako oinarri desagokiak dira. Egoera bere horretan mantenduz gero, **presio fiskala handiagoa beharko du izan balizko zerga-bilketa osagarrian.**

Euskal Herri osorako balizko pentsio sistema bakarraren bideragarritasuna aztertzea zaila da egun. Frantzian beharrean aritutako erretiratu asko Ipar Euskal Herrira jotzen dute lana utzi eta gero eta Ipar eta Hego EHko bizitzaren kostua bi errealitate desberdin dira. Ildo horretan, **650 eurotik beherako pentsioak arras arraroak dira Ipar EHn, baina Hego EHn erretiro pentsioen %29a dira (24.or)**, hots, pobrezia arriskupean dira. Azken urteotan, Hego Euskal Herrian pentsioen igoera bizitzaren garestizetik (Kontsumo Prezioen Indizetik) laxatu da, eta honek, pentsionisten erosahalmena gutxituko duela aurreikustekoa da.






3. DES-HERRIA: HAMAIKA ERRONKA



[Kapital ekonomikoa]


3.1. ZAILTASUN MAKROEKONOMIKOAK

>> *Euskal Herriko BPGak, Europa motelaren zidorrean, zailtasunak ditu 2008ko bolumena berreskuratzeko*




BPGaren bilakaerak bi abiadura ditu krisi aroko Europan: abiadura motela, tartean dira Euskal Herria, Espainia, Katalunia, Grezia edo Portugal. Bestaldetik, abiadura bizkorra, artean Erresuma Batua, Suedia, Irlanda edo Alemania. Euskal Herriak laster 2008 urteko BPG bolumena berreskuratzea espero da, baina Erresuma Batuen balizko irteerak bi abiaduren Europan sakondu dezakeela ohartarazi dute zenbait adituk. Bien bitartean, Euskal Herriak 2008-2014 aroan *per capitako* BPGan erregioen rankingean 83. postutik 120.ra igaro da.

**BPG per capita (€).
Euskal Herria eta Europa, 2015 (p)**



**BPG, enplegua eta I+G gastuaren hazkunde tasa 2008/15 epealdian.
Euskal Herria eta Europa**




Enpleguan edo I+Grako gastuaren bilakaeran ere aipaturiko Europako barne heterogenotasuna marrazten da. Euskal Herriko enplegu bolumenak edo I+Gra bideratutako gastuaren bilakaera urrun da Alemaniako errealitatetik eta Espainiaren zidorrean da, abiadura moteleko Europaren zidorrean.

Zailtasun makroekonomiko horien testuinguruan, *soldatapekoen ordainsari* gero eta pisu gutxiago dute BPGaren gainean. Ipar EHn, gutxieneko soldata 1.467€koa da, eta Hego EHn, 764€koa (2016).

>> BPG, enplegua edo I+Gra bideratutako gastuaren bilakaerek abiadura moteleko Europan jartzen dute Euskal Herria

**Soldatapeko ordainsarien bilakaera (%BPG).
Hego EH eta Europa**




>> Soldatapekoen ordainsarietiek geroz eta pisu txikiagoa dute Euskal Herriko BPGan. Krisi hasierako gorakada eta gero, Madrilgo lan erreformen ondoriozko jaitziera nabarmena da, bereziki 2012tik

[Kapital ekonomikoa]

3.2. KAPITALAREN IHESA

>> *Krisi aroko kapitalaren joan-etorriak 43.400 milioi euroko hutsunea utzi du Hego Euskal Herrian. 2007 urtean biziki alde egin zuen*

>> *2007az geroztik atzerriratutako kapitalaren baturak azken urteko BPG osoaren %60aren tamaina dauka*



Azken hamarkadan askoz gehiago izan da atzerriratutako kapital ekonomikoa erakarritakoa baino, iturri ofizialek erregistraturiko mugimenduaren arabera. 2007 urtean bakarrik, 32.000 milioi € atzerriratu ziren, bereziki udaberrian, mundu mailako krisia hasi baino zertxobait lehenago. Helmuguen artean Erresuma Batua, AEB, Alemania, Txina edo Mexiko.

Kapital ekonomikoaren saldo negatiboak 66.000 enplegu inguru desagerrarazi ditu, zenbait sektoreetan indarrez.

Kapital ekonomikoaren joan-etorria eta honen enplegu stocka. Hego Euskal Herria, 2007/15.

	Milioi €	Enplegu stocka
Erakarritakoa	9.335	82.066
Atzerriratutakoa	52.734	148.092
Saldoa	-43.398	-66.026

Iturria: Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

>> *Kapital ihesarekin 66.000 enplegu galdu dira Hego Euskal Herrian*

Kapital ekonomikoaren joan-etorriaren eraginaren menpeko jarduera-adar nagusiak.
Hego Euskal Herria, 2007/15.

	Milioi €		
	Erakarritakoa	Atzerriratutakoa	Saldoa
OROTARA	9.335	52.734	-43.398
DESKAPITALIZATUTAKO JARDUERA-ADAR NAGUSIAK			
Energia elektrikoaren, gasaren, lurrinaren eta aire girotuaren hornidura	796	24.014	-23.218
Finantza zerbitzuak, aseguruak eta pentsio fondoak salbu	71	16.600	-16.529
Beste garraio material baten fabrikazioa	1	2.531	-2.530
Telekomunikazioak	227	1.577	-1.349
Paperaren industria	139	1.072	-933
Edarien fabrikazioa	258	942	-683
Metalurgia; burdinazko, altzairuzko eta burdin aleaziozko produktuen fabrikazioa	86	646	-559
Material eta ekipo elektriko fabrikazioa	22	490	-468
KAPITALA BEREGANATU DUTEN JARDUERA-ADAR NAGUSIAK			
Eraikinen eraikuntza	1.582	11	1.570
Jarduerak higiezinekin	812	5	807
Txikizkako merkataritza, ibilgailu motordunak eta motozikletak salbu	733	1	733
Handizkako merkataritza eta merkataritzako bitartekariak, ibilgailu motordunen eta motozikletena salbu	1.480	766	714
Deskontaminazioko jarduerak eta hondakinak kudeatzeko beste zerbitzu batzuk	625	0	625
Biltegiatzea eta garraioarekin uztartutako jarduerak	620	44	576


Iturria: Espainiako Ekonomia, Industria eta Lehiakortasun Ministerioa.

>> Kapitalaren ihesa energia zenbaitzuetan eta finantza zerbitzuetan eman da nabarmen. Eraikinen eraikuntzan, higiezinetan eta merkataritzan kanpo kapitala etorri da

>> Atzerriratutako kapital ekonomikoak Erresuma Batua, AEB, Alemania, Txina eta Mexiko izan du helmuga nagusia

>> Erakarritako kapital gehiena paradisu fiskaletatik, AEBtik edo Erresuma Batutik dator

Atzerriratutako kapitala, helmuga nagusien arabera (milioi €). Hego Euskal Herria, 2007/15




[Kapital ekonomikoa]

3.3. NAZIOARTEKOTZEA, ESPORTAZIOEI EUSTEKO ESTRATEGIA


>> Euskal Herriko esportazioen bolumena gora, baina 2008aren azpitik oraindik

>> Krisi aroko nazioartekotzeak Espainia helmuga zuten esportazioen beheraldia leundu egin du, baina ez du bere osotasunean ordeztu




Euskal Herriko esportazioek beheraldi garrantzitsua izan zuten 2009 urtean, eta hurrengo biurtekoan, berriz ere gora egin zuten. 2011az geroztik, ordea, esportazioen bolumen orokorra paretsu mantentzen da.

Izan ere, Espainia helmuga duten esportazioen bolumena gainbehera doa, eta Espainia bezero garrantzitsua izan arren, gero eta pisu txikiagoa dauka Euskal Herriko guztizko esportazio bolumenean. Bien bitartean, enpresek nazioartekotzeari ekin diote, bezero-zorroa aniztuz eta harreman historikoak indartuz.



>> Orotara, esportazioek Euskal Herriko BPG-aren %54,5 osatzen dute (2014), 2008 urtean baino 2,8 gutxiago

Esportazioak (BPGaren %): egun eta 2008az geroztiko hazkundera. Euskal Herria eta Europa




Euskal Herriko ekonomia egiturak tradizioz esportaziorako joera handia du, eta horren zutabe nagusia, industria da. Esaterako, 2015 urteko (behin-behineko) datuen arabera, BPGaren %52,9a esportazioak dira, Danimarkaren parean eta Alemaniaren aurretik.

>> Nortasun industrialari loturiko esportazio tradizio handia du Euskal Herriak. Esportazioekiko menpekotasuna Alemaniakoa baino handiagoa da

Mundu mailako potentzia berrien esportazio jariora gorakada doa, baina harreman ekonomiko historikoen eta XX. mendeko estatuen arteko aliantza politikoaren itzala oso handia da. Euskal Herriko esportazioen bezero nagusiak Espainia, Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, AEB eta Italia dira, hurrenkera horretan. Krisi aroan, Maroko, Espainia, Aljeria eta Portugalek pisua galdu dute gure bezero-zorroan.

>> Harreman ekonomiko historikoen eta XX. mendeko estatuen arteko aliantza politikoaren itzala handia da

Esportazioen hazkunde-tasa, helmugaren arabera. Hego Euskal Herriko bezero nagusiak, 2008/15




[Giza kapitala - Kapital ekonomikoa]

3.4. BERRIKUNTZA POSIZIONAMENDUA APALTZEN EUROPAKO TESTUINGURUAN

>> 2014/16 epealdian Nafarroa Garaiko berrikuntza posizionamendua Europan asko apaldu egin da. EAEkoa ere bai, baina gutxiago


>> Euskal Herrian, indargune nagusia herritarren goi-formazioa da, ahulgune nagusia berrikuntza gastuaren murrizketa

Berrikuntza, Europako Berrikuntza Adierazleen Panelaren arabera (EIS). Euskal Herria eta Europa, 2016



Europako Berrikuntza Adierazleen Panelaren (EIS) helburua Europako berrikuntzaren analisi konparatiboa egitea da, hala nola lurralde bakoitzaren ikerkuntza eta berrikuntza sistemen indar eta ahuleziak ezagutzea. Xede horrekin, hainbat dira aintzat hartzen diren aldagaiak: herritarren goi-formazioa, sektore publiko eta pribatuen I+Gko gastua edo berrikuntza prozesuak produktuetan nahiz antolakuntzan, besteak beste.

Goi mailako formazioa, 25-64 urteko biztanlerian (%). Euskal Herria eta Europa, 2015 urtea





>> Euskal Herriko berrikuntzarako indargune nagusia herritarren formazioan eta maila teknologiko handiko eta ertain-handiko produktuen esportazioan datza

EAE berrikuntza indartsua duten erregioen artean dago, baina panelaren azken bi urteetan, berrikuntza ahuldu egin da (-%6). Indarguneak: herritarren goi-formazioa, elkarlanean berrikuntzan diren enpresa txiki-ertainak edo ezagutza intentsiboko enplegua. Ahulguneak: enpresen I+Gko gastua, I+Gko gastu publikoa eta I+Garekin zerikusia ez duen berrikuntza.

Nafarroa Garaia berrikuntza neurritsua duten erregioen artean da eta azken biurtekoan jaitsiera handia nozitu du (-%22). Indarguneak: herritarren formazioa edo ezagutza intentsiboko industriako enplegua. Ahulguneak: I+G gastua, antolakuntzari loturiko berrikuntza edo I+Garekin zerikusia ez duen berrikuntza.

Berrikuntza Adierazleen Panela. 2016 urtea




[Giza kapitala]

3.5. ENPLEGUAREN PREKARIZAZIOA


>> Euskal Herrian aktiboen %25,3 langabezian edo prekarietate baldintzetan ari da lanean. Hego Euskal Herriko lan merkatuaren prekarizazioa nabarmena izan da azken lan erreformen eskutik

>> Hego Euskal Herrian soldatapekoen %24 aldi baterako kontratupean ari da lanean; Ipar Euskal Herrian, aldiz, %14,7



Ipar Euskal Herriko lan merkatuak ahulune garrantzitsuak ditu aspaldidanik, baina Hego Euskal Herrian 2008 urteaz geroztik emandako bilakaera medio, Euskal Herriko aktiboen laurden bat langabezian edo prekarietate egoeran bizi da (%25,3). Euskal Herri osorako datu zehatzik ez bada ere, 2014 urtean azken lau hamarkadetan inoiz ezagaturiko egoera larriena erregistratu zen: biztanleria aktiboaren %26,6 langabezian, azpienplegupean edo lana bilatzeko adorerik gabe zegoen, nahiz eta eraginkortasun handiko ekonomia izan.

Langabezia eta prekarietate tasa. Euskal Herria eta Europa, 2015 urtea



>> Euskal Herriko langabezi eta prekarietate mailak aise gainditzen du Europar Batasuneko egoera orokorra

>> Euskal Herria Espainiaren joerapean da, Danimarka edo Alemania bezalako erreferenteetatik oso urrun

Euskal Herrian 115.000 landun lanaldi partzialean ari dira bere borondatearen kontra, lanaldi osoko lana topatu ezinik. Beste 37.400 pertsona, aktibo potentzialak izan arren, lana bilatzeko adorea galdu dute. *Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE)* definizioaren arabera langabetu dauden 206.800 pertsonen gehituta, Euskal Herriko lan merkatuak gabezi nabarmenak ditu. Ildo horretan, Euskal Herria Espainiaren joerapean kokatzen da eta Danimarka edo Alemania bezalako erreferenteetatik oso urrun dago. Europar Batasuneko errealitate orokorra ere bestelakoa da.


Azken urteotan langabezia neurtzeko metodologiaren gaineko eztabaida zabaldu egin da eta EUROSTATEk lan eza neurtzeko elementu gehigarri batzuk proposatu ditu. Horrela, LANEk definituriko ohiko langabeziaren harago, azpienplegua (lanaldi partzialean ari diren landunak, bere borondatearen kontra) eta enplegu bilaketan adorea galdu duten aktibo potentzialak aintzat hartzea proposatu du, lan merkatuko ezaugarri berriak aintzat hartu nahian.

Euskal Herriak ez du berezko egitura administratiborik, eta ondorioz, behintzat bi interbentzio politika eta bi errealitate barnebiltzen ditu. Horren erakuslea da Hego Euskal Herrian soldatapekoen %24a aldi baterako kontratuean lanean aritzea, eta Ipar Euskal Herrian, aldiz, %14.7a.

[Giza kapitala]

3.6. PREKARIETATEAREN FEMINIZAZIOA

>> *Euskal Herriko emakume aktiboen artean langabezia eta prekariedade maila %32,3koa da, azken urtean ia bi puntu jaitsi eta gero*




Lan merkatuaren prekarizazioa bereziki indartsua izan da andreen artean, eta gauzak horrela, egun Euskal Herriko andre aktiboen heren bat langabezia eta prekarietatean da (%32,3). Errealitate honek 2014 urtean jo zuen bere puntu gorena.

Emakumezkoen lan baldintzen kaskartzean borondatez kontrako lanaldi partzialen gorakadak pisu handia dauka. Izan ere, lanaldi osoko lana nahi baina lanaldi partziala dutenen artean, lautik hiru emakumezkoak dira. Hots, Euskal Herrian azpienpleguak emakume aurpegia dauka.

Lanaldi partzialaren feminizazioa aspaldikoa da gurean, eta partzialtasunaren egungo gorakadan, gero eta gehiago dira honen menpeko andreak. 2013az geroztik (lan erreformaren aplikazioa) izandako hazkundearen ondorioz, Euskal Herrian beste lurralde batzuetan baino gehiago hazi da kopuru hau. Eta ez dator bat gure antzeko ekonomikoa duten herrieekin.

**Lanaldi partzialaren feminizazioa (%).
Euskal Herria, 2015 urtea**




>> EAE da Euskal Herriko lanaldi partzialaren presentzia handiena duen lurraldea

>> Hego Euskal Herrian 88.000 emakumek azpienplegupean ari dira lanean. Beste 30.000 inguru, haur edo helduen zaintzetan

Euskal Herria osatzen duten lurralde guztientzat azpienpleguaren feminizazioaren gaineko nahi beste xehetasun ez badaude ere, lan partzial guztien feminizazioaren gaineko lurralde argazki txiki bat egitea lagungarria da. Fenomenoa nahiko homogeneoa da Euskal Herri osoan, oso indartsua da EAEn eta Nafarroa Beherean zertxobait ahulagoa.

Genero desorekak erpin asko ditu eta euskal gizartean eta bere lan merkatuan oso errotua dago. Hego Euskal Herrian egun 88.000 dira lanaldi osoko enplegua topatzen ez duten emakumezkoak, 30.000 inguru haur edo helduen zaintzetan aritzeagatik lanaldi osoko enplegurik ez dutenak.

**Andreen artean lanaldi partziala izateko arrazoen bilakaera.
Hego Euskal Herria**




[Giza kapitala - Kapital kulturala]

3.7. ARGILUNAK GARAPEN SOZIALEAN, EUROPAKO ERREFERENTEETATIK URRUN

>> *Euskal Herria, Garapen Sozialaren Indizean 114 postuan Europako 272 erregioen artean*

>> *Norbanakoen eskubideen arloan Euskal Herriak huts egiten du: sistema politiko, juridiko eta poliziaren gaineko herritarren konfiantza txikia da*

Garapen Sozialaren Indizea. Euskal Herria eta Europa, 2016²



Garapen Sozialaren Indizeak gizarte eta ingurugiroari loturiko 42 adierazle aintzat hartzen dituen indizea da. Irabazi asmorik gabeko *Social Progress Imperative* erakundeak diseinaturiko adierazle honetan ez da aldagai ekonomikorik kontutan hartzen eta EUROSTAT eta *Orkestra-*

² Iturria: EUROSTAT.

Lehiakortasunerako Euskal Institutuaren arteko lankidetzaz Europako erregioetarako berriki kalkulatu izan da. Guk Euskal Herri mailako kalkulua egin dugu. Laburrean³, indizearen edukiak hiru ataletan egituratzen dira: *oinarrizko giza beharrak*, *ongizatearen oinarriak* eta *aukerak*.

Garapen Sozialaren Indize orokorra Europako geografian barrena behatuz, hiru errealitate bereizten dira: garapen sozial handikoak (Europa iparraldeko erregioak eta zentroko zenbaitzuk), ertainekoak (Europa Erdialdeko gehienak, Frantzia, Erresuma Batua, Iberiar penintsulako iparraldekoak, Euskal Herria tartean) eta garapen sozial txikikoak (ekialdeko Europa, Mediterraneoko erregio gehienak eta Portugal).

Garapen Sozialaren Indizea. Euskal Herria, 2016.				
	EAE	Nafarroa Garaia	Ipar EH	EUSKAL HERRIA
Oinarrizko giza beharrak	✓ 84,3	✓ 77,9	✓ 82,1	✓ 82,8
Ongizatearen oinarriak	⚠ 67,6	⚠ 67,3	⚠ 63,9	⚠ 67,2
Aukerak	⚠ 63,2	⚠ 64,9	⚠ 62,9	⚠ 63,5
INDIZE OROKORRA	⚠ 71,4	⚠ 69,9	⚠ 69,4	⚠ 70,9

>> *Euskal Herriko indargune nagusia oinarrizko giza beharren asetasun maila handia da*

Euskal Herriko *Garapen Sozialaren Indize* orokorra 70,9koa da (0-100 eskalaren baitan). Balorazio altuena *oinarrizko giza beharretan* dago (82,8), nahiz eta etxebizitza eskuragarritasunean balorazioa zertxobait apala izan (69,2). Ongizatearen oinarrietan balorazioa 67,2koa da, ekosistemaren jasagarritasunean dauden zenbait ahultasunengatik. Euskal Herriko ahulgune nagusia herritarren aukeretan dago (*aukerak* blokearen barruan), norbanakoen eskubideetan huts egitearen ondorioz. Hutsegite hau nabarmenagoa da Hego Euskal Herrian.

Garapen Sozialaren Indizea. Euskal Herria, 2016.						
		EAE	Nafarroa Garaia	Ipar EH	EUSKAL HERRIA	
Oinarrizko giza beharrak	Elikadura eta oinarrizko osasun arreta	✓ 91,0	✓ 94,6	✓ 84,7	✓ 91,1	
	Ura eta saneamendua	✓ 92,8	⚠ 61,3	✓ 90,6	✓ 86,1	
	Etxebizitza	⚠ 67,6	⚠ 71,1	✓ 76,7	⚠ 69,2	
	Segurtasun pertsonala	✓ 87,1	✓ 87,0	✓ 76,7	✓ 86,1	
Ongizatearen oinarriak	Oinarrizko ezagutzaren eskuragarritasuna	✓ 74,6	⚠ 67,5	⚠ 70,5	⚠ 72,8	
	Informazio eta komunikazioetara sarbidea	⚠ 64,7	⚠ 62,4	✓ 73,7	⚠ 65,1	
	Osasuna eta ongizatea ekosistemaren jasagarritasuna	✓ 75,4	✓ 79,4	⚠ 73,0	✓ 76,0	
Aukerak	Norbanakoen eskubideak	✗ 29,4	✗ 33,2	✗ 39,8	✗ 31,1	
	Askatasun pertsonala eta erabaki ahalmena	⚠ 70,4	✓ 73,2	✓ 76,1	⚠ 71,5	
	Tolerantzia eta inklusioa	✓ 79,3	✓ 78,0	✓ 78,4	✓ 78,9	
	Goi-formazioaren eskuragarritasuna	✓ 82,4	✓ 82,3	⚠ 61,6	✓ 80,4	
INDIZE OROKORRA		⚠ 71,4	⚠ 69,9	⚠ 69,4	⚠ 70,9	


³ Indizearen diseinuan eta edukietan sakondu nahi izanez gero, sakatu [hemen](#).

[Giza kapitala - Kapital ekonomikoa]

3.8. BI PENTSIO SISTEMA: BI ERREALITATE


>> Hego EHn erretiratutakoan %29a pobrezia atalasearen azpitik dagoen pentsioa jasotzen du; Ipar EHn, %10era baino ez dira iristen

Erretiroan eta lanean dagoen biztanleriaren bilakaera (2008=100). Euskal Herria



Pentsio sistemaren finantziakzioa bolo-bolo dabil dagoeneko. Euskal Herriak, orotara, 464.000 erretiratu inguru ditu, eta Hego EHn (Espainian bezala), kalitate eskaseko enpleguaz nekez finantzatu ahal izango dira pentsioak zerga-bilketa mugatuagoa delako. Iparralden, ordea, Frantzia beharrean aritutako erretiratu asko Ipar EHra jotzen dute lana utzi eta gero. Egoera honek, Euskal Herri osorako balizko pentsio sistema bakarraren bideragarritasuna aztertzea arras zailtzen du.


Erretiro pentsioak, tamainaren arabera (€). Euskal Herria, 2016⁴



⁴ Iparralderako datuak estimazioa dira, 2013 urteari dagozkionak. Iturria: Espainiako Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioa, EAPN, INSEE eta Frantziako Gobernuua.


Hurrengo atalean Hego eta Ipar Euskal Herriko pobrezia atalase desberdinak aipagai izango dira. Europar Batasunak biztanleriaren pobrezia atalaseak definitzeko diru-sarreraren mediana irizpide gisa aintzat hartzen du. Zentzu horretan, Euskal Herria bi estatuetan banatuta, Ipar Euskal Herrian *mileurista* bat pobrezia atalasearen azpitik dago, baina ez Hego Euskal Herrian. Pentsioekin ere hauxe gertatzen da. Paradoxa hauek eta beste asko ditu Euskal Herriak bere baitan.

**Pentsio nagusien batatz besteko balioaren eta KPIaren bilakaera (2008=100).
Hego Euskal Herria**



Azken urteetan Hego Euskal Herriko pentsioen igoerarako irizpideak aldatu egin dira, eta horrela, KPIari jarraitzen ez dioten igoera minimoak aplikatzen ditu Madrilgo gobernuak. Goiko grafikoan ageri bezala, 2013 urteaz geroztik Hego EHn ez da bizitzaren garestitzea handitu (KPI), bai ordea, oso ohikoak diren hainbat produktu eta hornikuntza (argindarra). Aurreikustekoa da joera aldatzea eta horrek pentsionisten erosahalmena are gehiago kaltetuko du, urtetan galdutako ahalmenaren eraginez. Egun, Hego EH erretiratutako 125.000 pentsionista daude pobrezia atalasearen azpitik, eta alarguntasun egoeran, beste 79.700 (emakumeak, ia denak).

**Pobrezia egoerak, pentsio motaren arabera (%).
Hego Euskal Herria, 2016**



>> Hego EHn, erretiroan dauden 125.000 herritar pobrezia arriskupean dira (%29,6) eta beste 79.700 alarguntasun pentsioarekin (%48,4). Zurztasun eta laguntza familiarreko pentsioak dira, halere, pobrezia arrisku handienaren iturburu


[Giza kapitala - Lurralde plangintza]

3.9. POBREZIA: GORABIDEAN ETA LURRALDE DESOREKAK AGERIAN

>> 521.400 pertsona pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskuan, EUROSTATen arabera

>> Gasteiz, Bilbo, Tuteralea edo Ezkerraldean metatzen dira pobrezia mehatxupearan diren herritarrak


Pobrezian edo gizarte bazterketan erortzeko arriskua (%). Euskal Herriko eskualdeak, 2014⁵



Europa zuzo estrategian pobrezia kuantifikatzeko adierazieen arabera, 521.400 euskal herritar pobrezia edo gizarte bazterketan erortzeko arriskupearan dira. Horien artean, 280.300 herritarrek lan intentsitate baxua daukate eta 128.200k gabezi material handiak ditu. Metodologia honen arabera, pobrezia atalasea desberdina da Hego eta Ipar EHN (testuinguruarekiko erlatiboa).

⁵ Egun Euskal Herri osorako pobrezia gainean bateragarria den metodologia bakarra EUROSTATekoa da. Metodologia hori irizpide gisa, lurraldearen gainean ahalik eta modu xeheenean estimatu da. Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, eta INSEE.

Pobreziaren bilakaera, EB-28ko indikadoreen arabera. Euskal Herria



Azken urteotan, pobrezia edo gizarte bazterketan erortzeko biztanleriaren kopuruak gora egin du Euskal Herrian %16,7 izateraino. Espainian, aldiz, %28,6koa.


Europako pobrezia indizeen arabera (ARPE) Alemania edo Finlandian pobrezia arriskua are handiagoa da, hango irizpide ekonomikoen eraginez.

Joeraz pobrezia fenomeno urbanoa izan ohi da, eta Euskal Herrian ere hala da nagusiki. Baina badira zenbait ñabardura geografiko. Alde batetik, gizarte bazterketaren mehatxua batez ere bi hiriburutan metatzen da: Gasteiz eta Bilbo. Bestetik, Ezkerraldea eta Tuteraldean ere arrisku maila oso handia da, lurralde antolamenduan urtetako gabezien erakusle.

2008 urteaz geroztik herritarren arteko desorekek gora egin dute, gizarte kohesioa ahulduz. EAEko dezilen araberako diru-sarreraren bilakaera adierazgarria da: 2008-2014 epean diru-sarrera txikienez izan dute uzurtze proportzionalik handiena⁶.

Diru-sarreraren bilakaera per capita, dezilen arabera. EAE, 2008/14 epealdia

>> *Euskal Herri osorako daturik ez bada ere, 2008az geroztik aberatsenen eta txiroenen arteko tartea handitu egin da, EAEko datuek erakutsi bezala*



⁶ Pobrezia eta Desoreka Sozialen inkesta, 2008-2014. Iturria: Eusko Jaurlaritza.


[Giza kapitala - Lurralde plangintza - Baliabide naturalak - Kapital kulturala]

3.10. EUSKAL HERRIAN LAN ETA BIZI, ZAILTASUN HANDIKO LELOA ZENBAIT LANDA EREMUETAN

>> Landa eremuko zenbait eskualdeen iraunkortasun demografikoa kolokan da aspaldidanik, eta egungo krisi aroak, hau areagotu du

>> Erronkari-Zaraitzu, Arabako Mendialdea, Zangozerria eta Ebro Garaiko Erribera, 2008 urteaz geroztik biztanleria gehien galdu duten zonaldeak

Biztanleriaren hazkunde-tasa, 2008/15 epealdian. Euskal Herriko eskualdeak



Euskal Herria aro demografiko berri batean da, eta bere baitan joera desberdinak egon arren, biztanle kopurua egonkortze bidean jarri du. Lurralde ikuspegi integral batetik, ordea, kezkarria da Euskal Herriko landa eremuko zenbait eskualdek duten metabolismo demografiko kaxkarra. Azken hamarkadan barne migrazio indartsuak eman dira lurraldean, eta testuinguru ekonomiko orokorrak, eskualde batzuen huste prozesua azkartu du.

Egun euskal herritarren %80 eremu metropolizatuan bizi da eta geroz eta ugariagoak dira hiritarrak. Landa eremuko eskualdek ezin dute hirien aukera eskaintza edo etxebizitza eskuragarritasunarekin lehiatu, eta hirietan metaketa (biztanleriarena, jarduera ekonomikoena, hirigintzarena,...) indartu duten lurralde antolamenduen ondorioei aurre egin ezinik dira hainbat. Horien artean, Erronkari-Zaraitzu, Arabako Mendialdea, Zangozeria edo Ebro Garaiko Erribera. *Euskal Herrian lan eta bizi*, Gasteizen ala Zangozan jaio, ez baita modu berean gauzatzen.

>> *Hiriak lurralde topagune nagusiak dira, kapital sozial, ekonomiko eta kulturala erakartzeko gaitasuna dute. Landa eremuak egoera horri nekez egin diezaioke aurre*

>> *Etxebizitza eskuragarritasuna, hiri-hazkundeak eta honi loturiko metaketa, jarduera ekonomikoena tartean, barne migrazio handiak eragin ditu azken hamarkadan, zenbait landa eremuen kaltetan*

Iraunkortasun demografikorako zailtasunak dauzkaten eskualde nagusiak. Euskal Herria, 2015 urtea.

	Bilakaera	Biztanleria orotara eta adinaren arabera (%)					
	2008/15	Orotara	0-14	15-29	30-44	45-64	65 eta +
Erronkari-Zaraitzu	-9,8	3.068	7,4	9,6	15,8	33,6	33,7
Arabako Mendialdea	-6,1	2.982	11,1	9,6	19,3	32,6	27,4
Salbaterraldeko herri elk.	-4,4	65	9,2	4,6	9,2	40,0	36,9
Zangozeria	-4,3	8.049	12,7	14,0	18,9	29,3	25,1
Ebro Garaiko Erribera	-3,1	26.365	13,8	15,8	21,4	27,5	21,5
Baztanaldea	-1,9	8.421	15,8	12,4	21,6	27,3	22,9
Tafallaldea	-1,9	23.704	13,9	14,4	21,8	27,6	22,4
Zuberoako herri elk.	-1,9	12.829	13,7	12,3	15,6	30,2	28,2
Oloroaldeko herri elk.	-1,8	539	15,2	12,2	17,4	32,1	23,0
Irunberrialdea	-1,7	1.968	10,0	12,2	20,9	28,8	28,1
Lea Artibai	-1,7	26.073	13,5	12,6	20,9	30,3	22,8
Arga-Aragoiko Erribera	-1,6	30.695	14,6	15,5	22,1	26,7	21,1
Estellerriko Ekialdea	-1,4	31.366	13,7	13,7	20,4	28,9	23,3
EUSKAL HERRIA	2,2	3.131.079	14,5	13,7	22,6	28,4	20,8

Iturria: EUSTAT, INE eta INSEE.

[Lurralde plangintza - Giza kapitala - Kapital ekonomikoa]

3.11. MUGAZ GAINDIKO LANKIDETZARAKO GAITASUNA, HERRENKA

>> *Europar Batasuneko hainbat eremu mugakideetan bezala, lankidetzaz errazten eta bideratzen duten eragileen hutsunea dago gurean*

>> *Finantziazioa, araubide administratiboak eta esperientzien gaineko informazio eroale falta, mugaz gaindiko lankidetzarako traba nagusiak*

Europar Batasuneko diru-laguntzaz sustaturiko mugaz gaindiko lankidetzaz proiektuak. Euskal Herria, 2013/16.			
Taldeburuaren kokagunea	Eragin eremua	Proiektu kopurua	Aurrekontua (milioi €)
Hego EH	Ipar EH	34	33.495
	Hego EH	3	3.121
	Frantzia	20	17.461
	Beste	6	9.745
	<i>Orotara</i>	<i>63</i>	<i>63.822</i>
Ipar EH	Hego EH	24	18.898
	Espania	1	15
	Frantzia	2	30
	<i>Orotara</i>	<i>25</i>	<i>18.943</i>
EUSKAL HERRIA	EH	61	55.514
	EHTik kanpo	29	27.251

Oharra: Euskadi-Akitania, Potecfa eta Interreg Sudoe programak aintzat hartu dira.

Iturria: Europar Batasuna. Azaro fundazioa eta GAINDEGIA.

Lankidetzaz jarduera asko eta oso izaera desberdinetakoak ditugu Euskal Herrian. Jarduera gehienak, ordea, eragileen borondatean dute oinarri eta falta da halako jarduerak sustatu, babestu eta bideratzen dituen arkitektura funtzional bat Europako Batasuneko hainbat eremu mugakideetan dagoenaren antzekoa.

Finantza baliabideen arazoa ez duten proiektuen atzean, aldiz, diru-laguntzen iraupenari loturiko aldi baterako aliantzak nagusitzen dira. Eremu honetan, aipatzekoa da Ipar EHn formalizatzen diren mugaz gaindiko lankidetzaz proiektu gehienak Hego EHri begiratzen diotela.

>> Ipar EHren ikuspegitik, Hego EH lankidetzarako esparru interesgarria da. Gaur gaurkoz, hau ez da kontrako norabidean maila berean ematen

>> *Bidasoako muga administratiboak bi errealitate sortu ditu esparru gehienetan. Ondorioz, Hego eta Ipar EH arteko hartu-eman*


desnaturalizatuta dago termino makroekonomikoetan, baina ez gertutasun geografikoak eta kulturalak sortzen duen hartu-emanan

Hego Euskal Herriko eragile nagusien joera ez da bera hainbat arlotan, ekonomian, formazioan zein berrikuntza esparruan beste aliantza asko gertatzen baitira, batez ere Akitaniako metropoliarekin, askotan Ipar EHn zer dagoen ezagutu ere egin gabe. Ikusteke dago Ipar Euskal Herria elkargo bakarrean eratzeak errealitate honetan duen eragina.

Ekimen sozialak bultzatutako lankidetzaren esparruan, finantzazioa arazo bat izan ohi da, lankidetzaren esperientzien gaineko informazio eroale, saregile, gutxi dago eta zailtasun administratiboak handiak dira eragile txikientzat. Euskara, harreman pertsonalak, herri kontzientzia eta gertutasun geografikoa, ostera, mugaz gaindiko lankidetzarako indarguneen artean dira.

Bestaldetik, Nafarroa Garaia eta EAE arteko lurralde arteko hartu-emanen zenbait gorabehera gertatu dira azken urteotan. Esaterako, lehen sektorean eta elikagaien industrian esportazioen bolumen orokorra hazkunde positiboan eta autokontsumoa gora egin arren, erkidego bi hauen arteko hartu-eman komertzialak behera egin du. Bidasoako muga administratiboarekin gertatu ez bezala, Nafarroa Garaia eta EAE arteko harremana historikoki estua izan da, baita ikuspuntu makroekonomikotik ere. Osagarritasun handiko ekonomiak dira, eta elikagaien esparruan, Nafarroa Garaiko produktuen merkaturatzea atzera egin du beste jatorri batzuetakoen aldean.

Lehen sektoreko eta elikagaien industriako kontsumoa (2008=100). Hego Euskal Herria



>> *Nafarroa Garaia eta EAEn lehen sektoreko eta elikagaien industriako esportazioek gora egin dute, autokontsumoa barne. Bien bitartean, erkidego bien arteko hartu-eman komertziala gutxitu egin da 2008/13 epean*

